

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA

ANIZTASUNA ESKOLAN

IV. MODULUA

Ikasurtea: 2024/2025
Haur Hezkuntzako Gradua

EGILEAK: Telmo Irastorza

Nagore Irazustabarrena

Nora Labaien

Lia Landazuri

Berenize Lavin

TUTOREA: Izaro Arroitia

HITZALDIEN HAUSNARKETA

Bigarren lauhileko honetan hainbat hitzaldi ezberdin jaso ditugu DILAN IV burutzeko, gai askotarikoak eta oso aberasgarriak izan dira. Horregatik, hitzaldi hauen inguruan hausnartuko dugu hurrengo lerroetan.

Hasteko, Hezkidetzari buruzko hitzaldi bat jaso genuen. Honei esker, hezkidetzaz zer den hobeto ulertzen laguntzeaz gain, beste hainbat hitz-gako ikasi genituen, hain zuzen ere, gorputza, zaintza, ez-bitartasuna, interseksionalitatea eta plazera. Hezkidetzaz hezkuntza eredu bat da, berdintasunean eta justizia sozialean oinarritua, neska-mutilei aukera eta tratu berdinak bermatzeko. Behin gaiari buruzko terminologia ikasita, bidai sentsorial baten zehar murgildu ginen. Bertan, kartulinekin eta material desberdinekin, liburuxka txiki bat egin genuen hitz-gakoei buruzkoa. Hitzaldi honi esker, hezkidetzarekiko genuen ikuspegia zabaltzea lortu dugu, teoria eta errealitatea ezagutuz.

Jarraian, Microsoft-eko formazio saio txiki bat izan genuen. Bertan, Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruko hainbat ezagutza barneratu eta birpasatu genituen.

Bigarren hitzaldian, “ADI ADIAN” programaren baitan, Oiartzungo gizon batekin izan genuen hitzaldia. Hark, Frankismoaren eta ETAren garaian bi aldeetatik bazterketak eta torturak jasan zituen. Honek erakusten du gizartean eztabaidatzen diren gai polemikoetan ikuspegi guztiak errespetatzea ezinbestekoa dela, naiz eta ez egon ados, izan ere, hori galtzen bada, benetako arazoak sortzen dira. Oso gogorra egin zitzaigun bere hitzak entzutea.

Hurrengoan berriz, familia anitzeko testigantzak entzun genituen. Bertara, hiru emakume etorri ziren eta haien esperentzia bortitzak azaldu zizkiguten.

Lehenengo emakumeak, familia-harrera sistemaz hitz egin zigun, izan ere, haren haur bat familia harreratik jaso dute. Nola izan zen prozesua aipatu zigun, haurra etxean izan baino lehenagokoa eta ondorengoa, hau da, haurra familian zegoenean. Izan ere, haurrak hainbat esperientzia bizi izan zituen familiak ezezagun zituenak eta horregatik prozesu geldoa izan zen haurra ondo ezagutu eta bere beharretara egokitu arte. Aipatu zuen, eskolan ere hori egitea beharrezkoa dela. Hau da, hezitzaileek haur bakoitza ondo ezagutu behar du gelako aniztasunari erantzutea egokia emateko, modu honetan, inklusioa bermatuko da.

Bigarren emakumeak berriz, jasandako indarkeria matxistaz hitz egin zigun. Nola bizi izan zituen urteak bere bikote ohiarekin eta nola egin zion aurre jasaten zituen egoera bortitzei. Baita ere, haurra egoera horretan hezteak zer suposatu duen. Emakume honek, gizarteak eskeintzen dituen hainbat baliabide behar izan ditu aurrera ateratzeko, ala nola, indarkeria matxista jasan duten emakumeen etxea, abokatuak... Emakume honek ere, eskolaren lanari ere garrantzia handia eman zion, izan ere, hezitzaileek asko lagundu zion hari eta haren haurrari. Baita ere aipatu zuen, eskolan familia eredu desberdinak ikustearen garrantzia handia zela.

Azken emakumeak ordea, gizartean tabu den gai batetaz hitz egin zigun: doluaz, kasu honetan, hain zuzen ere, senarra edota aita hiltzearen doluaz. Bere haurrak egun batetik bestera aita galtzearen egoeraz hitz egin zigun, nolakoa izan zen prozesu gogor hori eta nola bizi eta ulertzen duten haurrak heriotza. Hauek, heriotza ulertzea zein garrantzitsua den nabarmendu zigun eta baita ere horrelako egoeren hurrean nola jokatu. Baita ere, aipatu zigun tabu den gai hau txikitatik naturaltasunez landu behar dela.

Aipatzekoa da ere Gautenako bi emakumeen hitzaldia. Gautena, autismoan zentratzen den elkarte da, hauek, autismoari ikusgarritasuna eta balorea eman nahi die. Bi emakume hauen kasuan, ikastetxe batean egiten dute lan. Gipuzkoan 22 gela dituzte ikastetxe zein zentro desberdinetan banaturik. Hauetan, gehienez 5 ikasle eta 2 hezitzaile egon daitezke eta naiz eta asko dirudien, askotan eskas geratzen direla kontatu ziguten. Izan ere, haur bakoitzak behar batzuk ditu, haur bakoitzak ezberdinak eta horregatik hezitzaileak hurren gainean egon behar dute. Hauen helburua, autismoa duten hurrei ahalik eta hezkuntza egokiena bermatzea da.

Azkenik, Oriora joan ginen balearen bidea egitera. Bertan, Orioko Zaragueta Herri eskolako zuzendariak eskolako kideek sortutako proiektuaren berri eman zigun. Hau, eskola zein herrian dagoen kultura-aniztasunari erantzuteko sortua izan zen. Hau lortzeko, ibilbidean zehar dauden paneletan hainbat hezkuntza txertatu zituen, aniztasunari erantzuteko asmoz. Horretarako, eskolako ikasle eta familiei laguntza eskatu zien. Herri guztietan egon litzakeen proiektu bat dela iruditzen zaigu, bertako historia ezagutzeaz gain aniztasuna bultzatzen duelako.

Hitzaldi hauek entzun ondoren ondoriozta dezakegu zein garrantzitsua den hezkuntzak haur guztiak kontuan hartzea, hau da, hezkuntza duin eta egoki bat bermatu behar da, haur bakoitzaren aniztasuna kontuan hartuz eta haur bakoitzaren egoera eta ibilbidea ezagutuz. Izan ere, guztiok gara anitzak eta horrek egiten gaitu desberdin. Hitzaldien bitartez ikasi dugu inklusioa eta elkar ulertzea ezinbestekoa dela gizarte duin bat eraikitzeko eta horretarako hezkuntzatik hasi behar gara hurrei hezkuntza egokia emateko.

FAMILIA ANIZTASUNA

1. HAUSNARKETA

Gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

Alde batetik, bizi gara gizarte batean non ohikoa den ikustea, adibidez, sexu bereko gurasoak dituzten familiak, ama edo aita bakarreko familiak, harrera familiak... Baina, beste alde batetik, gaur egun badago ohituta ez dagoen jendea familia mota horiek ikustera arrazoiren batengatik, eta harrigarria egiten zaie familia tradizional bat ez ikustea (tradizionaltzat hartzen da seme-alaba bateko edo biko familia sexu desberdineko gurasoekin).

Gaur egungo gizartea etengabe aldatzen ari da, eta horregatik oso garrantzitsua da familiak eta haurrak kontzientziatzea ez dagoela familia mota bakar bat, baizik eta familia bakoitza mundu bat dela eta bat ere ez dela beste baten berdina. Oso gogoan izan behar dute ez dagoela inolako araurik familia hobea edo okerragoa izateko, baizik eta familia bakoitza den bezalakoa dela eta hori errespetatu egin behar dela.

Hori kontuan hartuta, adibidez, atzerriko familiei buruz ari garela, beren ohiturak, kultura, erlijioa... ez dauden leku batera iristen dira. Alde horretatik, lagundu egin behar zaie ulertzen ez dela familia-eredu bakar bat egon behar, nahiz eta beren gizartean hala izan. Helburua da ikusaraztea askatasun osoa dagoela edozein familia mota sortzeko, eta, era berean, errespetatu egin behar dute familiak beren herrialdean bezala ez izatea, hemengo ohiturak eta gizartea ezin baitira aldatu.

Genero rolei buruz, lehen ohitura zen gizonak lan egitea eta dirua etxera eramaten zuela, eta emakumeak etxea eta haurrak zaintzen zituela. Gaur egun hori aldatu egin da, baina kontzientziatzen jarraitu behar da genero bat ez dagoela gauza bat egitera bideratuta. Familia bakoitza mundu bat da, eta ez du esan nahi eredu hori jarraitu behar ez dutenik, baizik eta haurrek ez dutela hazi behar pentsatuz rol markatu bat duten familia mota jakin bat izatera bideratuta daudela. Oso garrantzitsua da familia bat osatzeko garaian erabakitzeko askatasuna dutela ikastea. Horrek ere lagunduko lieke atzerriko familiei ulertzen dena ez dagoela markatuta, baizik eta erabakitzeko askatasun osoa izateak eskubide bat izan behar duela, eta ez daudela jarraibide batzuk betetzera behartuta.

Aurreko guztia esanda, amaitzeko, gizartearen helburua familia, bikote, harreman... mota asko daudela kontzientziatzea izan behar da. Ez dagoela ezer markatuta, umeei erakustea etorkizunean familia bat sortu nahi dutenean, edo ez, askatasun osoa dutela eta ez direla presionatuta sentitu behar erabaki bat hartzeko, baizik eta sentitzen dutena egin dezatela. Horrek atzeritarrei ere laguntzen die, beren kulturagatik rol markatuak dituzten

herrialdeetatik datozelako, familia mota markatua dutelako... Eta horregatik ez dituztela erabakiak sentitzen dutenagatik hartzen, normaltzat hartzen denagatik baizik.

Informazio eta komunikazio teknologiak

Familia aniztasuna gizartearen ezaugarri nabarmenetako bat da, eta teknologiak eragin handia du aniztasun honekiko ikuspuntuari dagokionez. Teknologia familia ezberdinen errealitateak ikustarazteko baliabide bat izan daiteke, baina baita ere arriskuak sor ditzake.

Ikasleen aniztasunari dagokionez, teknologiak eragin nabarmena du. Hezkuntzan baliabide digitalek esaterako, familia eredu desberdinak erakusteko/aurkezteko aukera ematen dute, ikasleek haien familia-egitura edota beste batzuen errespetuz ulertu ahal izateko. Bestalde, irakasleei eduki interaktiboak eta anitzak eskaintzen dizkie, familia mota guztien errealitatea barne hartuz. Gainera, arrakala digitala kontuan hartzea ezinbestekoa da, izan ere, familia guztiek ez dutelako teknologiarako sarbide bera eta ondorioz, desberdintasun sozialak areagotu egin daitezke.

Familia eredu anitzak dituzten ikasleak askotan eredu hegemonikoetatik kanpo sentitzen dira, eta teknologiak izugarri lagundu dezake beraien errealitatea ikusgai egiten. Adibidez, ipuinen bitartez, haurrek beraien burua bertan islatuta senti dezakete.

Zapakultzei dagokienez, teknologia oso tresna boteretsua izan daiteke familia aniztasuna onartzen ez duten jarrera diskriminatzaileak salatzeko. Ezagunak diren adibideak, sare sozialak eta blogak izango liratezke, non bertan, esperientziak partekatzeaz gain bazterketa egoerak salatzeko aukera izaten duzun. Ahuldune soziala ekar dezakeen **ondoriotako** bat informazioa digitala eskuragarri izatea da. Esaterako, LGTBIQ+ familiei buruzko informazio fidagarria eta errealista zabaltzeak aurreiritziak puskatzen lagun dezake, komunitate horien ikusgarritasuna ugartuz.

Teknologia era inklusiboan erabiltzeko, familia aniztasuna islatzeaz duten edukiak garatzea eta zabaltzea funtsezkoa da. Horretarako, webguneek, aplikazioek eta hezkuntza-materialek familia mota guztien errealitatea islatu beharra dute. Hezkuntzan, plataforma digitalek aukera izan behar dute haurren inklusioa sustatzeko eta familia-eredu desberdinak erakusteko.

Bestalde, eduki digitalen egokitzea beharrezkoa da irisgarritasuna bermatzeko. Azpinituluak, testu-irakurleak eta bestelako irisgarritasun tresnak erabiliz, hezkuntzako edukiak komunitateko kide guztientzako eskuragarri jarri behar dira. Hala eta guztiz ere, hurrei familia-egitura anitzen berri emateko aplikazio hezitzaile inklusiboak garatzea aukera ona izan daiteke. Gainera, familiek hezkuntza-plataforma digitaletan aukera izan beharko lukete haien egitura edo identitatea inongo bazterkeriarik gabe adierazteko, hau da, askeak izan beharra dute.

Teknologiaren neutraltasunari dagokionez, ez da batere neutrala, izan ere, haren garapena eta erabilera gizartearen balio eta interesen arabera baita. Algoritmoek maiz familia tradizionalaren lehenetsi dezakete, familia aniztasuna baztertuz. Sare sozialak aniztasuna ikusgai izatera zaildu dezakete, izan ere, edukiak errealitate jakin batzuk isilarazi edota baztertu ditzazkelako.

Gainera, teknologiaren ekoizpenak ingurumen-inpaktua du, baliabide naturalak ustiatuz eta hondakin elektronikoak sortuz. Beraz, teknologiaren erabilera arduratsua sustatu behar da, bai ikuspegi sozialetik, bai ekologikotik.

Azkenik, aurretik esan bezala, teknologiak maiz errealitate jakin batzuk ezkutatzen ditu. Honen eragile nagusietako bat sare sozialetako algoritmoak dira, edukien irismena kontrolatzen dutelako eta gehienetan familia tradizionala nagusiten delako bestelako eredu guztiak alde batera utziz. Horez gain, informazio mekanismoek aniztasunaren ikuspegia mugatu dezakete, esate baterako, familia ez-normatiboen inguruko informazioa ahalik eta gutxien erakutsiz.

Ondorioz, familia aniztasuna errespetatzeko eta sustatzeko, teknologia tresna erabilgarria izan daiteke, baina horretarako haren erabilera kontzientea eta inklusiboa beharrezkoa da. Zapalkuntza egoerak salatzeke tresna indartsua izan daiteke, hezkuntza baliabideetan familia eredu guztiak ikusaraziz eta irisgarritasuna bermatuz. Hala ere, teknologia ez da neutrala, eta bere inpaktu sozial eta ekologikoa ulertzea ezinbestekoa da, guztiontzat ingurune bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeko.

Horretarako, beharrezkoa da eredu teknologiko arduratsua eta inklusiboa garatzea, non familia guztiek beren lekua izango duten eta hezkuntza, komunikazioa eta informazioa guztiontzat eskuragarri izando diren. Teknologiaren bidez aniztasunaren ikusgarritasuna bultzatu behar da, desinformazioaren aurkako neurriak hartuz eta ahuldutze soziala sustatuz. Azken heinean, teknologiaren erabilerak gizarte justuago bat eraikitzeke tresna zian behar du, ez desberdintasunak areagotzeko bide bat.

Haur hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan

Pertsona elebiduna, *bi hizkuntzetan lau trebetasunak erabiltzeko eta kontestudun zein kontestugabeko komunikazioan aritzeko gai dena* da Bilbaoren arabera (1998), beraz, pertsona eleanitzuna, hizkuntza bat baino gehiagotan ulertu, irakurri, mintzatu eta idazteko gai dena izango litzateke, bai kontestu informalago edota formalago batean ere.

Eremu geografiko bateko hizkuntza aztertzerakoan, tokiko ofizial, zein koofizialaz gain, euskal hiztunen lurraldearen kasuan bezala, beste hainbaten erabilera hauteman dezakegu. Arrazoiak, ere, ugariak izan daitezke, hala nola, migrazio-prozesuaren ondorioz jatorri, erlijio, etnia eta kultura ezberdinen aldi bereko existentzia; baita, prozesu honen ondorioz tokian tokiko hizkuntzen eta beste batzuen arteko batura. Argi dagoena da, gizakion

mugimenduak eta hedapenak bezalaxe, hizkuntza ere bizirik dagoela; beraz, bi norabideko erlazio bat ematen da, hau da, familia-aniztasunak eleaniztasunean eragina du, eta alderantziz.

Hizkuntzak, kulturari lotuta egon ohi dira, edo barne; hau da, gizartearen eta identitatearen aberastasuna islatzen dute. Beraz, ezin da kontzebitu aniztasun hau, migrazio eta nahasketa kulturalik gabe. Hau da, pertsonen arteko harremanak, eta, beraz, familien egitura ezberdinen arteko uztarketak, kulturaren ugaritasun handia dakartzate.

Aberastasun honek, gizarte kohesionatuago, oparoago eta irekiago bat inplikatzeko du; zeinetan, biztanleek errespetu eta enpatia bezalako baloreak landu beharko zituzten, eredu guztiak aitortuz eta baloratuz. Baina, euskal hiztunen lurraldeari dakogionez, diglosia egoera eta normalizazio prozesu batean dagoenez, “behe mailako” hizkuntza honentzat zaugarria izan daiteke hizkuntza ezberdinen uztarketa.

Lehenik eta behin, hizkuntzaren transmisioa dugu, bada, euskararen igorketa hein handi batean familia barruan ematen den prozesua delako. Beraz, guraso elebazarrek nola transmitu diezaiekete euskara seme-alabei? Eta, are ohikoagoa, bikote mistoetan gertatzen diren aupadak, izan ere, normalean hizkuntza bat gailentzen da, bien uztarpena oso zaila izanik. Bestalde, euskaldun komunitate berria izango litzateke; hau da, gero eta anitzagoa da migratzaileen presentzia Euskal Herrian, beraz, erronketako bat, euskara espazio inklusibo eta erakargarria bilakatzea da. Azken finean, etxean hitz egiten den hizkuntzak, indar handia du gizabanakoengan; eta ondorioz, biziberritze prozesu bat eman behar da tokian tokiko testuinguruan.

Eskola inklusiboaren oinarriak

Gizartea etengabe aldatzen ari den errealitate bat da eta horren barruan familiaren egiturak ere aniztasun handia erakusten dute. Gizartearen bilakaerak eta pertsonen arteko harremanen aldaketek familia-egituren dibertsifikazioa ekarri dute. Gaur egun, gero eta gehiago dira familia tradizionaletik urruntzen diren egiturak, eta horrek gure hezkuntza-sistemaren ikuspegia ere moldatu beharra dakar.

Familia tradizionalaren eredua, guraso heterosexualez eta hurrekin osatutakoa, ez da gaur egungo gizartean dagoen bakarra. Familia aniztasuna hainbat modutan agertzen da, guraso bakarreko familiak, familia homoparentalak, adopzio bidezko familiak, familia birkonposatuak eta kultura ezberdinetako familiak, besteak beste. Horrez gain, badira familia zabalak, non aiton-amonak, osaba-izebak eta beste senide batzuk paper aktiboa duten haurren heziketan. Familia bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta haien beharrak ere desberdinak izan daitezke. Horregatik, ezinbestekoa da eskolek errealitate hori kontuan hartzea eta haurren ongizatea bermatzeko neurriak hartzea.

Gizartea aldatzen doan heinean, aipatu dugun bezala, familia-moten aniztasuna ere handitzen da, eta hori ezin da hezkuntzan alde batera utzi. Eskolak, gizartea eraldatzeko gune gisa, aniztasun hori ikusarazi eta aitortu behar du. Eskola inklusiboa ikasle guztientzako hezkuntza-esparru bat izatea du helburu, non edozein jatorri, identitate edo egoera sozialeko haurrek berdintasunean eta errespetuan oinarritutako ikaskuntza jasotzen duten.

Familia-aniztasuna onartzea eta ikasgelan lantzea beharrezkoa ikusten dugu, batez ere haurrek beren errealitatea eta ingurukoa ezagutzeko eta errespetatzeko balio duelako. Haurrak euren familia-ereduaren inguruan segurua eta babestua sentitu daitezen garrantzitsua da. Horretarako, irakasleek sentsibilizazio-lana egin behar dute, haurrak beste familia moten errealitateekin ohitu daitezen eta estereotipoak hautsi ahal izan ditzaten. Haurrek aniztasuna txikitatik barneratzen badute, etorkizunean gizarte bidezkoago eta anitzago batean bizitzeko prestatuta egongo dira.

Hezkuntzak inklusioaren oinarria izan behar du, eta hori lortzeko, ezinbestekoa da irakasleek familia mota guztien aurrean jarrera ireki eta positiboa izatea. Era berean, eskola inklusibo batek curriculum ofizialean familia-aniztasunaren inguruko edukiak txertatu beharko lituzke. Gizartearen aldaketa eta bilakaera etengabeak kontuan hartuta, eskolek hezkuntza-programetan gai hau modu esanguratsuan jorratu beharko lukete, haurrak beren ingurunean eta gizartean gertatzen diren aldaketei aurre egiteko prestatzeko. Horrek material didaktikoetan aldaketak egitea eskatzen du, baita irakasleen prestakuntza iraunkorra ere. Eskola inklusibo batek espazio segurua eskaini behar du haur guztientzat, inongo diskriminaziorik gabe. Hori lortzeko, irakasleek eta hezkuntza-komunitate osoak jarrera errespetuzkoa izan behar dute, eta hurrei txikitatik irakatsi behar zaie eredu guztiak onargarriak eta baliozkoak direla. Horrek, gainera, hurrei autoestimua indartzen lagunduko die, eta etorkizunean gizarte bidezkoago eta anitzago baten parte izateko prest egongo dira. Eskolak, hurrei balio demokratikoak irakatsi behar dizkie, hala nola, elkarrekiko errespetua, askatasuna eta berdintasuna.

Aipatutakoa lortzeko, ezinbestekoa da familien eta eskolaren arteko lankidetzaren sustatzea, hezkuntza-prozesua aberatsagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Gainera, irakasleek baliabide pedagogiko inklusiboak erabili beharko dituzte, familia guztien ikusgarritasuna bermatuz. Adibidez, ikasmaterialetan familia-eredu anitzak islatu beharko dira, eta ikasgelan, eztabaidak bultzatu beharko dira, horrela, haurrek beren errealitatea partekatu eta besteen esperientziak ulertuko dituzte. Gainera, eskolak gurasoen inplikazioa bilatu behar du, familia ezberdinen arteko harremana eta ulermena sustatzeko. Familien inklusioa sustatzeko, eskolak familiei zuzendutako jarduerak antolatu behar dituzte, horrela guraso guztiek parte hartu ahal izango dute.

2. DIAGRAMA

III. ERANSKINA: DIAGRAMA ETA HAUSNARKETA TXANTILOIA

